Lintx eta Katamaloen etorrerarekin eman izan zaie Legazpiko Inauteriei hasiera ofiziala ostiralean eta igandeko panpina erre aurretik berriz ere azaldu izan ohi dira.
Hona hemen Lintx pertsonaia berreskuratu -asmatzera eraman zituzten arrazoiak, Legazpiko Inauterietarako pertsonai bat sortzeko gogoaren ondorio.

**LYNX (grekera)**

Izen honekin izendatua agertzen da Legazpiko udal dokumentu zahar batzuetan Katamotza. Katamotzak, otsoa eta beste animalia harrapakeri batzuk bezalaxe, inguruko baserritar eta artzainei buruhauste ugari ekartzen zizkien: artalde eta etxe-abereetan kalteak egiten zituzten eta beldurra eragin ere bai. Gisa honetako animalien ehiza baimendua zegoen eta ehizaldiak antolatzen ziren.

Euskal inauteriaren tradizioan, eta Goierri alde honetan bereziki, ohikoak ziren "limosna-eskeak": gazteek auzoz auzo eta baserriz baserri ibiltzen ziren janari eta limosna eskean, Otsabilko deitzen zitzaion ohitura berrituz. Otsabilko, otsoarentzako eskatzea alegia, jai edo ohitura honen inguruko azalpenetako bat baino ez da, baina gure berraitona-amonek hori zuten gogoan gorde diren abestiek adierazten duten legez:

Otsabilko, otsabilko
Ni basoa jun da otso aundi´at ekarriko, ekarriko
Nei lukainka muturr bat emate´ez dinai
Tripaki aurrera burruntzie sartuko, sartuko
(J:M. Barandiaranek Ataunen jasoa)

Legazpin, XX. Mendearen hasieran, Brinkola eta Telleriarteko gazteak baserriz baserri ibili ohi ziren inauterietan. Mozorrotuta joaten ziren, aurpegiak belztuta, eta musikariz lagunduta (soinua, trikitixa, panderoa,…): Katamaloak deitzen zitzaien. Hemen dugu katamotzarekiko lotura, izenean bertan.

Hemendik abiatuz proposatu zen bere garaian pertsonai hau, LINTX, gure inauterietan txertatzea. Eta koplak ere prestatu ziren:

**KOPLAK: Doinua:** Axuri beltza

**Ostiralean**

**1) Lintx beldurtzeko deia, bi aldiz.**
Lintx gaizto eta sarraski-zale
katamaloekin dator
uju ta aja, ulu ta txistu
tira karrakari gogor (bis)
(ABESTU ONDOREN ZARATA ATERA)

**2) Lintxek alde egin du. Ospatzeko kopla:**
Gure zaratei esker joan da
dantza eta sua lagun
uju ta aja, ulu ta txistu
festan ospatu dezagun (bis)

**Igandean**

**1) Lintx beldurtzeko deia, bi aldiz.**
Lintx gaizto eta sarraski-zale
katamaloekin dator
uju ta aja, ulu ta txistu
tira karrakari gogor

**2) Lintxek alde egin du. Ospatzeko kopla:**
Erraldoiari esker joan da
dantza eta sua lagun
uju ta aja, ulu ta txistu
festan ospatu dezagun